

## I.8 AZTERKETA PEDRIATRIKOA


### AZTERKETA PEDRIATRIKOA

8 urte betetzean Anek bisita bat egin dio pediatriari ohizko azterketa bat egiteko.



01

Pediatriak Aneri orain arteko hazkunde-kurba erakutsi dio. Bertan bere garaiera puntu gorriekin markaturik dago



Anek orain arteko hazkunde-erritmo bera mantentzen badu, zein izango da bere garaiera 10 urte dituenean?

- A. 130 cm
- B. 135 cm
- C. 140 cm
- D. 145 cm

02

Ane, 6 urte bete zituenean, pediatarrenera joan zen haurren txerto-egutegia betetzera.

| 2 HILABETE               | 4 HILABETE               | 11 HILABETE              | 12 HILABETE    | 15 HILABETE |
|--------------------------|--------------------------|--------------------------|----------------|-------------|
| B hepatitis              | B hepatitis              | B hepatitis              | Elgorria       | Barizela    |
| Difteria                 | Difteria                 | Difteria                 | Errubeola      |             |
| Tetanosa                 | Tetanosa                 | Tetanosa                 | Parotiditisa   |             |
| Kukutxeztula             | Kukutxeztula             | Kukutxeztula             |                |             |
| Poliomielitisa           | Poliomielitisa           | Poliomielitisa           |                |             |
| Haemophilus influenzae b | Haemophilus influenzae b | Haemophilus influenzae b |                |             |
|                          | C meningokokoa           |                          | C meningokokoa |             |
| Neumokoko konjugatua     | Neumokoko konjugatua     | Neumokoko konjugatua     |                |             |
| 4 URTE                   | 6 URTE                   | 10 URTE *                | 12 URTE        | 16 URTE     |
| Elgorria                 | Difteria                 | Barizela                 | Papiloma       |             |
| Errubeola                | Tetanosa                 |                          |                | Difteria    |
| Parotiditisa             | Kukutxeztula             |                          |                | Tetanosa    |
| Barizela                 | Poliomielitisa           |                          | C meningokokoa |             |

Zenbat txerto jarri zioten aldi hartan?

- A. 0 txerto.
- B. 1 txerto.
- C. 4 txerto.
- D. 6 txerto.

03

Pediatria kontsultan Anek taula batean ikusi du pertsonen batezbesteko garaiera 10 urtetik 14 urtera arte.

| Adina                        | 10 urte | 11 urte | 12 urte | 13 urte | 14 urte |
|------------------------------|---------|---------|---------|---------|---------|
| Garaiera mutilen artean (cm) | 139     | 144     | 149     | 156     | 160     |
| Garaiera nesken artean (cm)  | 138     | 144     | 151     | 157     | 160     |

Adierazi zein unetan gertatzen den “luzaldia”, hots, hazkunderik arinena, nesken artean.

- A. 10-11 urte bitartean
- B. 11-12 urte bitartean
- C. 12-13 urte bitartean
- D. 13-14 urte bitartean

04

Kontsultan, Aneren aitak osasunari buruzko inkesta bat bete du. Azaldu dietenez, inkesta hori jasotzen duten hamar pertsonen artetik hiruk bakarrik betetzen dute.

Zein zatikik adierazten du proportzio hori?

- A.  $1/10$
- B.  $3/10$
- C.  $1/3$
- D.  $10/3$

05

Kontsultan, Anek taula batean ikusi du adierazita pertsonen batez beste zenbat zentimetro hazten duten urtero 9 urtetik 16 urtera arte.

| Etapa                        | 9 -10 urte | 10 - 11 urte | 11 -12 urte | 12 - 13 urte | 13 - 14 urte | 14 - 15 urte | 15 - 16 urte |
|------------------------------|------------|--------------|-------------|--------------|--------------|--------------|--------------|
| Garaiera mutilen artean (cm) | 5          | 5            | 5           | 7            | 4            | 4            | 6            |
| Garaiera nesken artean (cm)  | 5          | 6            | 7           | 6            | 3            | 2            | 1            |

Grafikoari begiratu eta esan hurrengo baieztapenak egiazkoak (E)edo gezurrezkoak (G) diren:

|                                                                            | E | G |
|----------------------------------------------------------------------------|---|---|
| A. 14-15 urte bitartean mutilak neskak baino bi aldiz gehiago hazten dira. |   |   |
| B. 10 urtetik 12 urtetara neskak mutilak baino gehiago hazten dira.        |   |   |
| C. Neskak 12-13 urte bitartean hazten dira gehien.                         |   |   |
| D. Mutilak 15-16 urte bitartean hazten dira gehien.                        |   |   |